

Urte barri on guztioi eta aurrera!

Gabonetako jaiak atzean itxita, Mungian energi az eta optimismoz beteta hasi dogu urtea eta, batez bere, gure lurreko eta gure herriko produktu eta jenero onakaz, San Antontxuetako ferian dastatu eta gozatu ahal izango doguzanak; kanpokoentzat gure herriaren erakusleihen moduan urtean-urtean gero eta garrantzi handiago hartzen doazen eta Gabon-sasoi honetako jaiak apur bat luzatzeko aukerea emoten deuskuen jaiotan.

Joan diran egunotan etxeokaz eta lagunakaz egoteko eta eurakaz sasoi honetako plater eta jaki bereziez gozatzeko erea izan dogu eta, bide batez urtean zehar jazotako gertakizunak gogoratu ahal izan doguz; eta, halan gura izango genduan arren, zergaitik edo hargaitik egun berezi honeek geugaz batera bertan konpartitu ezin izan dabezanen oroitzapena gogoan izanda.

Orain urte barriari ilusinoz eta itxaropenaz aurre egiteko ordua da. Bertotik, udal-korporazio osoaren eta neure izenean, 2012rako gogo-nahirik onenak agertu gura deusuedaz eta, aldi berean, gure konpromisoa eskaintzen deusuegu gure herriak Alkarbizitza-gunea izaten jarraitu daian, bertan bizi garanon arteko harmoniak, solidaridadeak eta errespetuak bizirik eta agerian mantendu daian gure herriko kale eta ikurrik nagusienetako bati izena emoten deutson espiritua; hau da: Konkordia-Alkartasuna.

Urte gogorra daukagu aurrean, bizi dogun egoera ekonomikoaren ondorioz. Erakunde publikoak bere egoera horretan bizi dira, baina uste dogu orain inoiz baino gehiago indartu eta sustatu behar dirala sektore desbar-dinetan aktibidade ekonomiko sortuko daben iniziatibak, Mungian bere langabezia eta angustia ekonomiko bizi daben familiei lagundu ahal izango deusena. Benetan uste dogu gurearen moduko udalerrri baten oparotasuna mungiar guztiak barruan hartzen badira baino ez dala posible, eta uste sendo horregaz ahalegina egingo dogu gure herrian bizi diran guztiak babestuta sentidu daitezcan eta euren beharrezanein erantzuten ahalegintzen garala sentidu daian. Horixe da urte barrirako daukagun lehentasuna eta zuon laguntzagaz errealidade bihurtzea lortuko dogu.

Pasadas las fiestas navideñas, en Mungia comenzamos el año con energía y optimismo y, sobre todo, buenos productos de la tierra y del país de los que podremos disfrutar en la Feria de San Antontxu, festividad que año tras año cobra mayor importancia como escaparate de presentación de nuestro pueblo hacia el exterior y que nos permite alargar un poco más las jornadas festivas.

Estos días pasados, todos y todas hemos intentado disfrutar de la familia y las amistades, compartiendo platos especiales propios de la época, recordando pasajes ocurridos a lo largo del año y manteniendo también presente el recuerdo de quienes, por una u otra razón, no han podido compartir físicamente estas entrañables fechas con nosotros, como nos hubiese gustado.

Ahora toca afrontar el nuevo año con ilusión y esperanza. Desde estas líneas os quiero trasladar, en nombre de la totalidad de la corporación municipal y mío propio, nuestros mejores deseos para este 2012, a la vez que os ofrecemos nuestro compromiso de seguir trabajando para que nuestro municipio siga siendo un espacio de Convivencia, donde la armonía, la solidaridad y el respeto entre quienes lo conformamos mantengan vivo y presente el espíritu que da nombre a una de nuestras principales calles y símbolos: Konkordia-Alkartasuna.

Estamos ante un año difícil por la situación de crisis económica que vivimos. Las instituciones públicas no somos ajenas a esa situación, pero entendemos que, ahora más que nunca, es necesario impulsar y promover iniciativas que generen actividad económica en los diferentes sectores y que puedan ayudar a las familias que, también en Mungia, están padeciendo una situación de desempleo y angustia económica. Creemos firmemente que la prosperidad de un municipio como el nuestro sólo es posible si engloba a todos y cada uno de los y las mungiaras, y con ese convencimiento trataremos de que todos y cada uno de nuestros vecinos y vecinas se sientan arropados y atendidos en sus necesidades. Esta es nuestra prioridad para el nuevo año y con vuestro apoyo lograremos hacerla realidad.

Zuen ametsak egia bihurtuko diralakoan, hartu eizue besarkada bero bana.


Izaskun Uriagereka
Alkatesa